

## MEMORIA, 2020KO IRAILAREN 9KO AGINDUA, KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, EUSKARAZKO KOMUNIKAGAITASUN-MAILEN EBALUAZIOA ETA EGIAZTATZEGINTZA ARAUTZEN DITUENA, ALDATZEKO

AGINDUA, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze-gintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.

Orain, Agindu horri aldaketa batzuk egiteko beharra ikusi du HABEK.

- Lehenik, 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 22 eta 23. Artikuluetan adierazitakoa gure egiaztatze-gintzara egokitzeko aldaketa proposamenak. Dekretu honen bitartez, hizkuntza-eskakizunen sistema aldatu egin de euskal sektore publikoko entitateek lanpostuaren funtzio komunikatiboan azterketan oinarrituta, hizkuntza-eskakizun simetrikoak, asimetrikoak edo partzialak ezartzeko aukera arautu da. Asimetrikoen kasuetan lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen-trebetasunetan gaitasun-maila diferenteak behar direnean, hizkuntza-eskakizuna asimetriko adieraziko da. Partzialen kasuan, berriz, desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan, baldin eta desgaitasunaren balorazioan eta diagnostikoan ezin bazaie ebaluatu gaitasun-maila jakin bat, dela idazmenean eta irakurmenean, dela mintzamenean eta entzumenean, ez dituzte egiaztatu beharko ebaluatu ezin zaizkien adierazpen- eta ulermen-trebetasun horiek. Horiek horrela, HABEK urtero antolatzen dituen ohiko egiaztatze-deialdietan maila simetrikoez gain, maila asimetriko zein partzialak ere egiaztatze-ko aukera eskaini nahi du, eta horretarako beharrezkoa da 2020ko irailaren 9ko Agindua aldatzea
- Bigarrenik, behar bereziak dituzten eta egokitzapenak behar dituzten azterketarien ebaluazioa hobetzeko aldaketa proposamenak. Orain arte, probaren iraupena ebaluazio- zein egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa baino % 60 gehiago luzatzeko aukera zegoen. Orain % hori kendu egin da, behar bereziak dituzten azterketariek azterketaren iraupena luzatzeko aukera emanez.
- Hirugarrenik, euskaltegiei, A1 eta A2 mailez gain, beste mailaren bat edo batzuk emateko aukera ematea maila ofizialean. Atea irekita utzi nahi da euskaltegietan, A1 eta A2 mailez gain, beste mailaren bat egiaztatze-ko edo trebetasunen batean balio egiaztatzailea emateko aukera irekita uztea (gaur egun ahozko eta idatzizko ulermena euskaltegien bidez egiaztatzen da maila guztietan, ez horrela mintzamena eta idazmenean), beti ere, horretarako baldintza akademikoak ematen direnean. Eskabide hau euskaltegi pribatuek egin diote HABEri.
- Laugarrenik, ikasleei zuzendutako dirulaguntzen artikulua eguneratu da. 53. artikuluko hirugarren puntuan euskarazko komunikagaitasun-maila bat gainditu edo egiaztatu dutenentzako dirulaguntza-deialdiak gain, gehitu dugu HABEren zuzendariak beste dirulaguntza-deialdi batzuk egin ahal izango dituela, ikasle helduen artean euskararen ezagutza sustatzeko eta diru-baliabideak euskara ikasteko arazoa izan ez daitezen. Izan ere, Siadecok 2023ko uztailaren egindako “Azken 5 urteetan euskaltegietan matrikulatu ez diren EAEko herritar helduen arrazoiak aztertze-ko ikerketa” lanean, euskara harreman sozialetarako eta gizarte-integrazioarako tresna-gisa ikusita euskara ikasteko interesa eta probabilitatea atalean hiru kolektibo nabarmentzen dira, eta nagusia, Espainiar estatutik kanpo jaioak dira. Talde horretan % 49,8k interes handia edo oso handia du matrikulatzeko eta % 42rentzat matrikulatzeko probabilitatea altua edo erabatekoa da. Eta lan berean aipatzen da euskaltegian ez matrikulatzeko arrazoi nagusi gisa garestiegia izatea. Ildo beretik, XIII. Legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzaren 2024-2028ko Gobernu-Programaren 1. Ardatzean, 6. jardun arloan -Euskara- 43. Konpromisoan ondoko hau dago jasota: “Euskararen ezagutza areagotzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzea”. Konpromiso horien garapenerako ezinbestekoak dira euskaltegietara hurbiltze-ko herritarrei bideratuko zaizkien dirulaguntzak.
- Eta azkenik, bateratze-saioak modu eraginkorrago batean egiteko moduak eskaintzen dira, eta ikerle, tutore eta epaimahaikideen funtzioak hobeto zehazten dira., modu eraginkorragoan lan egiteko eta bikoiztasunak (bikoizteak) saihesteko. Esate baterako, tutore eta aztertzaileen arteko bateratze-saioak modu eraginkorrago

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

batean egiteko moduak eskaintzen dira (soilik presentzialki egin beharrean, on-line edo prestakuntza plataformaren bitartez egin ahal izatea) eta ikerle, tutore eta epaimahaikideen ardurak eta egitekoak hobeto banatu eta zehazten dira, azterketen zuzenketak eta berrikuspenak errepikatu ez daitezten. Hau guztia dator, urtetik urtera azterketari gehiago aurkezten direlako egiaztatze-deialdietara eta horri aurre egiteko prozesuen eraginkortasuna indartu nahi da.

Horiek horrela, honako aldaketa-proposamenak egiten ditugu:

## 1. Helburuari loturik, aldaketa hauek proposatzen dira:

11. artikulua.- Mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa. 5. Zatia.

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
5.- Euskaltegian HEOCaren B1, B2, C1 eta C2 mailetan mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa gainditu izana ezinbesteko baldintza izango da HABEren euskaltegietako ikasleentzako deialdietan matrikulatu ahal izateko, Agindu honen III. kapituluaren ezarritako irizpide eta jarraibideak betez.	5.- Euskaltegian HEOCaren B1, B2, C1 eta C2 mailetan mailaren atalasearen gaineko ebaluazioa gainditu izana ezinbesteko baldintza izango da HABEren euskaltegietako ikasleentzako deialdietan matrikulatu ahal izateko, Agindu honen III. kapituluaren ezarritako irizpide eta jarraibideak betez eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuak, 22. artikuluko 7. zatian, hizkuntza-eskakizun asimetrikoei buruz diotenari jarraituz.

12. artikulua.- Egiaztatze-gintzaren printzipio orokorrak. 3. zatiak.

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
3.- Deialdi ireki eta berezietako egiaztatze-probetara aurkezten diren azterketariak edozein mailatako probak egiteko matrikulatu ahal izango dira, eta ez da beharrezkoa izango beharrezko mailaren bateko egiaztatze irizpideak izatea.	3.- Urteroko azterketaldirako deialdiak aurreikusiko du, kasua balitz, komunikagaitasun-maila bat egiaztatze azterketan matrikulatzeko aurretik egiaztatu behar den gutxieneko komunikagaitasun maila.

13. artikulua. artikulua.- Egiaztatze-modalitateak.

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
HABEk egiaztatze-modalitateen aukerak zabaldu ahal izango ditu, Agindu honen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Ahozko nahiz idatzizko ulermen- eta ekoizpen-jarduerak, bakarrizketan edo elkarrizketan, bere baitara bilduko dituen gaitasun orokorra egiaztatzeaz gain, trebetasun horietakoren bati edo gehiagori dagozkien zatikako gaitasunak ere egiaztatu ahal izango dira, betiere deialdi	Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 22. artikuluko 8. zatian esandakoari men egingo zaio.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

bakoitzaren oinarrietan jasotzen diren aukeren arabera.

15. artikulua. Deialdi-mota bakoitzaren ezaugarriak.1-b zatia.

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
<p>b) HABEk, deialdi hauen helburuen artean, ezarriko du elkarren artean bat etorri behar dutela, euskaltegiek beren kabuz burutzen dituzten ebaluazio-eginkizunek batetik; eta, egiaztatzegegintzak –kanpo-ebaluazio den heinean– berekin dituen zereginak, bestetik. Ikuspegi horretatik, beraz, ikasleen entzunezko nahiz idatzizko ulermen-trebetasunak euskaltegian bertan ebaluatuko dira. Agindu honen 11. artikuluan mailaren atalasea ebaluatzeko ezarritako prozedurei jarraituz, ikasle batek mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-saio batean parte hartu ahal izateko, euskaltegi horretan HABEren zuzendari nagusiak egin deialdi-ebazpenean ikastaroaren trinkotasunaz, ikaslearen partehartzearen zenbatekoaz eta ikastarorako programatutako gutxieneko aurrerapenez ebazpenean zehaztutako eta derrigorrez bete beharreko baldintzak bete beharko ditu.</p>	<p>b)HABEk, deialdi hauen helburuen artean, ezarriko du elkarren artean bat etorri behar dutela, euskaltegiek beren kabuz burutzen dituzten ebaluazio-eginkizunek batetik; eta, egiaztatzegegintzak –kanpo-ebaluazio den heinean– berekin dituen zereginak, bestetik. Ikuspegi horretatik, beraz, ikasleen entzunezko nahiz idatzizko ulermen-trebetasunak euskaltegian bertan egiaztatuko dira, ikasleak egiaztatze-deialdian matrikulatu aurretik. Era berean, komunikagaitasun-maila ezberdinetako beste trebetasunak euskaltegian egiaztatu ahal izango dira eta HABEren zuzendari nagusiak egiaztatze-deialdi bakoitzeko Ebazpenean ezarriko ditu zehatz-mehatz deialdi horretan euskaltegian egiaztatu ahal izango diren mailak Agindu honen 11. artikuluan mailaren atalasea ebaluatzeko ezarritako prozedurei jarraituz, ikasle batek mailaren atalasearen gaineko ebaluazio-saio batean parte hartu ahal izateko, euskaltegi horretan HABEren zuzendari nagusiak egin deialdi-ebazpenean ikastaroaren trinkotasunaz, ikaslearen partehartzearen zenbatekoaz eta ikastarorako programatutako gutxieneko aurrerapenez ebazpenean zehaztutako eta derrigorrez bete beharreko baldintzak bete beharko ditu.</p>

16. artikulua- Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak. Artikulu honetan 5 eta 6 zatiak aldatzea proposatzen da:

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
<p>5.- A1 eta A2 mailen egiaztagiria erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea.</p>	<p>5.- A1 eta A2 eta etorkizunean HABEk erabaki ditzakeen mailen egiaztagiria erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea.</p>
<p>6.- B1, B2, C1 eta C2 mailen egiaztagiria erdiesteko, gainera, beharrezkoa izango da komunikazio-gaitasun orokorraren inguruko HABEren egiaztatze-proba gainditzea, HABEren</p>	<p>6.-Aurreko puntuan adierazten diren mailen egiaztagiriaz gain, gainontzeko mailen egiaztagiria erdiesteko, beharrezkoa izango da komunikazio-gaitasun orokorraren inguruko</p>

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

zuzendari nagusiak urtero egingo dituen deialdien arabera.	HABEren egiaztatze-proba gainditzea. HABEren zuzendari nagusiak egiaztatze-deialdi bakoitzeko Ebazpenean ezarriko ditu zehatz-mehatz deialdi horretan euskaltegian egiaztatu ahal izango diren mailak
--	---

45. artikulua. Komunikazio-gaitasunaren egiaztatze-ereduak.

Artikulu horretan bigarren puntua horrela utzi nahi da:

2.- Horretarako, euskara mailen egiaztatze-ereduak diseinatuko dira, komunikagaitasun-maila bakoitzeko bat, eta Agindu honetan eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera idatziko dira.

Modu berean, hirugarren puntua ezabatu, hauxe hain zuzen:

~~3.- Halaber, zatikako gaitasunen ziurtagiri-ereduak diseinatuko dira, Agindu honetako 4. eta 13. artikuluetan ezarritakoari.~~

47. artikulua. Ziurtagiriak baliozkotzea.

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
Agindu honetan araututako sistemaren bidez lortutako ziurtagiriak baliozkotzeko, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuan xedatutakoa beteko da. Dekretu horren bidez, aldatu egiten da euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua.	Agindu honetan araututako sistemaren bidez lortutako ziurtagiriak baliozkotzeko, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuan xedatutakoa beteko da. Dekretu horren bidez, aldatu egiten da euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren arabera

## 2. Helburuari loturik, aldaketa hauek proposatzen dira:

29. artikulua.- Ebaluazio- eta egiaztatze-gintza-probak egokitzeko neurriak. 2. puntua:

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
2.- HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek probaren zatietako bakoitzaren iraupena ebaluazio- zein egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa baino % 60 gehiago luzatu ahal izango dute	2.- HABEk, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuek probaren zatietako bakoitzaren iraupena ebaluazio- zein egiaztatze-proben inguruko zehaztapenetan ezarritakoa luzatu ahal izango dute

44. artikulua. Gorabeheretarako protokoloa.

Artikulu horretan hau txertatu nahi genuke:

Azterketari guztiakin, behar bereziak dituztenekin bereziki, eskaerei eta prozedurari buruzko akordioak beti modu idatzian jaso eta bidali behar dira, ziurtatzeko eskatu dena behar bezala jasota dagoela.

**3. Helburuari loturik, aldaketa hauek proposatzen dira:**

4. artikulua.– Egiaztatu eta ebaluatu daitezkeen mailak, azpimailak eta trebetasunak. 8. zatia

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
8.– B1, B2, C1 eta C2 mailak trebetasunez trebetasun egiaztatu ahal izango ditu HABEk, HEOCean trebetasun horiek balioesteko ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera: banaka, trebetasuna ekoizlea denean, eta era bateratuan, binaka, betiere trebetasun horietako batek izaera ekoizlea duenean.	8.– Euskara mailak trebetasunez trebetasun egiaztatu ahal izango ditu HABEk, HEOCean trebetasun horiek balioesteko ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera: banaka, trebetasuna ekoizlea denean, eta era bateratuan, binaka, betiere trebetasun horietako batek izaera ekoizlea duenean.

16. artikulua.– Egiaztatze-proben definizioa eta ezaugarriak.

2., 5. eta 6. zatiak

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
2.– Hizkuntzen Europako Portfolioa erabiltzeko Europako Kontseiluaren gomendioak betetzeari begira, egiaztagiri ofiziala erdiesteko probak mailaren atalasea menperatzen dela frogatzeko modukoak dira, eta hautagaiak euskararen erabileran duen gaitasun-maila ebaluatuko duten trebetasunen arabera diseinatuko dira; ondorioz, maila bakoitzari dagokion gaitasun orokorraren arabera HEOCaren sei mailatako egiaztagiriak emango dira, eta B1 mailatik aurrera, baita atalka ebaluatutako trebetasunen arabera zatikako egiaztagiriak ere.	2.– Hizkuntzen Europako Portfolioa erabiltzeko Europako Kontseiluaren gomendioak betetzeari begira, egiaztagiri ofiziala erdiesteko probak mailaren atalasea menperatzen dela frogatzeko modukoak dira, eta hautagaiak euskararen erabileran duen gaitasun-maila ebaluatuko duten trebetasunen arabera diseinatuko dira; ondorioz, maila bakoitzari dagokion gaitasun orokorraren arabera HEOCaren mailetakoko egiaztagiriak emango dira, eta baita atalka ebaluatutako trebetasunen arabera zatikako egiaztagiriak ere.
5.– A1 eta A2 mailen egiaztagiriak erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea.	5.– A1, A2 eta etorkizunean HABEk erabaki ditzakeen mailen egiaztagiriak erdiesteko, ezinbestekoa izango da euskaltegiko irakasleek ebaluatutako mailaren atalasearen gaineko proba gainditzea.
6.– B1, B2, C1 eta C2 mailen egiaztagiriak erdiesteko, gainera, beharrezkoa izango da komunikazio-gaitasun orokorraren inguruko HABEren egiaztatze-proba gainditzea, HABEren	6.– Gainontzeko mailen egiaztagiriak erdiesteko, gainera, beharrezkoa izango da komunikazio-gaitasun orokorraren inguruko HABEren

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

zuzendari nagusiak urtero egingo dituen deialdien arabera.	egiaztatze-proba gainditzea, HABEren zuzendari nagusiak urtero egingo dituen deialdien arabera.
--	---

#### 4. Helburuari loturik, ikasleei zuzendutako dirulaguntzak atala aldatzea proposatzen dugu.

Beraz, 53. 3. artikulua honela geratuko da. Letra etzanaz jarri den testua erantsiko dena da.

3.- Horretarako, HABEren zuzendari nagusiak, urtero, euskaltegiako ikasleentzako laguntzen deialdiak egingo ditu, aurrekontu-baliabideek horretarako bide ematen badute, dirulaguntza hauek aitortzeko baldintzak eta prozedurak ezarri eta moduluak eta irizpideak zehaztuz, euskarazko komunikazio-gaitasunen A1, A2, B1 eta B2 mailetako atalasearen ebaluazioa Agindu honetan zehaztutako moduan, euskaltegian gainditu, edota HABEren egiaztatze-proben bidez HEOCaren edozein maila gainditu duten ikasleei, edo, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera agiri baliokideak aurkezten dituzten ikasleei zuzenduak. *Euskaltegian atalase maila gainditzeagatik edota aipatutako tituluetako bat eskuratzegatik emandako dirulaguntzez gain, HABEren zuzendari nagusiak euskararen ezagutza sustatzeko eta ikasle helduen matrikulazioa ekonomikoki irisgarriagoa izateko, herritarrei zuzendutako dirulaguntza deialdiak egin ahal izango ditu.*

#### 5. Helburuari loturik, honelako aldaketak egitea proposatzen da.

23.8 artikulua honela geratuko litzateke

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
Ebaluatzaile ikerleak eginiko ebaluazioak probaren emaitza aldatzen badu, irizpen hori Mailaren epaimahaiari helaraziko zaio balioets dezan eta, onartuz gero, dagokion aktako kalifikazioa eguneratu dezan, era honetara amaiera emanaz probaren kalifikazio-prozesuari.	“Ebaluatzaile-ikerleak eginiko ebaluazioak probaren emaitza aldatzen badu, irizpen hori Mailaren epaimahaiari helaraziko zaio dagokion aktako kalifikazioa eguneratu dezan, era honetara amaiera emanaz probaren kalifikazio-prozesuari.”

25.2 artikuluan, testu hau txertatuko da:

Bateratze-saioak presentzialki, on-line edo horretarako bereziki prestatutako Prestakuntza-Atariaren bitartez egin ahal izango dira”

25.2 artikulua ere honela geratuko litzateke

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
HABEren Zuzendaritza Nagusiak bateratze-saio teoriko-praktikoak antolatuko ditu egiaztatze-probak kudeatzeko, ebaluatzeko eta kalifikatzeko; saio horietan egiaztatze-gintzako epaimahaikideek, tutoreek, ikerleek, aztertzaileek, irakasleek eta teknikari adituek parte hartuko dute.	HABEren Zuzendaritza Nagusiaren ardura izango da egiaztatze-probak kudeatzeko, ebaluatzeko eta kalifikatzeko bateratze beharrei bide emateko baliabideak zuzkitzea, egiaztatze-gintzako epaimahaikideen, tutoreen, ikerleen, aztertzaileen, irakasleen eta teknikari adituen iritzia jasota.

# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

--	--

37.3 artikuluko puntu hauek aldatu egin dira, honela utziz:

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
Aztertzaille eta tutoreen irizpidenak jaso ondoren, gaitasun-probak kalifikatzea	Aztertzaille eta tutoreen irizpenak jaso ondoren, gaitasun-proben kalifikazioak azterketarietara igortzea.
Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei erantzuteko tutoreek idatzitako proposamenak onartzea, eta interesdunei igortzea.	Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei erantzuteko tutoreek edota ikerleek egindako irizpenak jaso ondoren, kalifikazioak interesdunei igortzea
Deialdiko egiaztatze-proben maila bakoitzeko lagin bat berrikustea.	Deialdiko egiaztatze-proben kalifikazioen ondoren maila bakoitzeko lagin bat berrikustea.

38.2 artikuluan ere puntu hau aldatu da, honela utziz

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei emandako erantzun teknikoak prestatzea, probak berrikusiz eta, hala badagokio, birkalifikatu ondoren, dagokion mailako epaimahaiburuari jakinaraziz eta Epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari tutoreak izenpetuta bidaltzea	Egiaztatze-proben kalifikazioa berrikusteko eskaerei emandako erantzun teknikoak prestatzea, probak berrikusiz eta, hala badagokio, birkalifikatu eta izenpetu ondoren, dagokion mailako epaimahaiburuari jakinaraztea.

40. artikulua.- Ebaluatzaile ikerleak.

2.- Ebaluatzaile ikerlearen zereginak ondorengo hauek izango dira:

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
<ul style="list-style-type: none"><li>Azterketariak, arrazoituz, berrikuspenera eskatu duen idazmen-proben kasuan, probon behin betiko ebaluazio- eta kalifikazio-proposamena mailako epaimahaiari egitea, eta Epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari ikerleak izenpetuta bidaltzea.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Azterketariak, arrazoituz, berrikuspenera eskatu duen idazmen-proben kasuan, probon behin betiko ebaluazio eta kalifikazioak mailako epaimahaiari bidaltzea, eta epaimahaiak onartu ondoren, interesdunari ikerleak izenpetuta bidaltzea.</li></ul>

40. Artikuluan, ondorengo hau aldatu da

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
Azterketariak, arrazoituz, berrikuspenera eskatu duen idazmen-proben kasuan, probon behin betiko ebaluazio- eta kalifikazio-proposamena mailako epaimahaiari egitea, eta Epaimahaiak onartu	Azterketariak, arrazoituz, berrikuspenera eskatu duen idazmen-proben kasuan, probon behin betiko ebaluazio eta kalifikazioa egin eta izenpetuta epaimahaiburuari jakinaraztea.

# HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ondoren, interesdunari ikerleak izenpetuta bidaltzea	
--	--

43. artikulua.- Azterketarien eskubide eta betebeharrak. 1 zatian hau esaten da:

HAU ZIOEN LEKUAN	HONAKO HAU ESAN BEHAR DU
Betebeharrei dagokienez, berriz, euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarritutako A1 eta A2 mailetako egiaztapena eskuratu nahi duen ikasleak gutxieneko hauek bete beharko ditu:	Betebeharrei dagokienez, berriz, euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarritutako euskara mailetako euskaltegien egiaztapena eskuratu nahi duen ikasleak gutxieneko hauek bete beharko ditu:

Vitoria-Gasteizen ( sinaduran agertzen den datan eta orduan)

Natxo Mosteiro Robredo Ebaluazio eta Egiazteatzegintza arloburua	Xabier Balerdi Tolosa HABEren Didaktika zerbitziburua
---	--

